Alkartasuna, Europaren nortasuna

Karidade eta Zuzentasunerako Eleizbarrutiko Ordezkaritzaren, Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkaritzaren eta Bilboko Eleizbarrutiko Caritasen agiria europar hauteskundeak dirala-eta

Herritarrok hitzordua dogu maiatzaren 25ean, Europar Parlamentuan ordezkatuko gaituenak hautatze aldera, botoa emoteko: 751 kide legealdi barrirako eta legegintza-arloko eskumen barrietarako.

Guztiz kezkagarria iruditzen jaku askok hauteskunde honeen aurrean erakusten dauan eszeptizismo eta interesik eza. Europak krisiari aurre egiteko hartu dauan bidea, europar agintariek hartzen diharduen neurrien gizarte eragina, europar erakundeen eginkizuna eta herrialde bakotxaren interesak interes orokorren gainetik jarten dirala ikusita, jenteak gero eta konfiantza gitxiago dau europar egitasmoan eta erakundeetan eta zalantzen jarten da hauteskunde honeetan botoa emotea be.

Horretaz jaubetuta eta, kezka horreek neurri handi batean geure eginda be, uste dogu hauteskunde honeetan asko dogula jokoan: krisiari emongo jakon urtenbidea, gizakien aldeko eredu ekonomikoaren aldeko apustua eta, azken batean, bere herritarren zerbitzura dagoan Europa egitea. Honen haritik, Europa zabal eta abegitsua gura dogu, giza eskubideakaz eta gizarte zuzentasunagaz konprometituta dagoan Europa, iraunkorra eta bakean, zuzenago eta solidarioagoa gizabanako eta gizatalde ahulenakaz.

Bat egiten dogu Europar Batasuneko Gotzainen Batzarren Batzordearen eskariagaz: Europa alkartasunez eta erantzukizunez jantzitako alkarte lez eratu behar dogula dinoe, merkaduko ekonomia sozialaren ereduan oinarrituta, arlo ekonomikoagaz batera, arlo politiko eta moralari be garrantzia emonez. Hori dala-eta, zuzentasun eta bakearen alde egin behar dau, gizon eta emakume guztien funtsezko eskubideak babesteko borondate erabagigarriagaz.

Badogu betebehar bat kristinau alkarte lez: alkartasuna, guztion ona eta ingurumena zaintzea helburu nagusitzat izango dituan mundu barria eraiki behar dogula gogorarazo eta eskatu europar Parlamenturako hautagaiei. Frantzisko aita santuagaz bat eginez, *gizarteak, herriak, behartsuen bizitzak benetan min egingo deutsen politikoak emoteko* eskatzen deutsagu Jaunari (Evangelii Gaudium 205).

Herritar eta kristinau lez ezin gara axolagabe geratu. Horregaitik dei egiten dogu botoa emon eta, holan, Europaren orainaren eta geroaren eraikuntzan parte hartu daigun. Milioika gizon eta emakumeren bizia eta duintasuna dago jokoan.

Bilboko Elizbarrutia
Diócesis de Bilbao

Cáritas
Bizkaia

MISIOAK
Bilboko Elizbarrutia
Diócesis de Bilbao

La solidaridad, identidad de Europa

Comunicado de la Delegación Diocesana de Caridad y Justicia, Delegación Diocesana de Misiones y Cáritas Diocesana de Bilbao ante las elecciones europeas

El día 25 de mayo los ciudadanos y ciudadanas estamos convocados a elegir a quienes nos van a representar en el Parlamento Europeo: 751 miembros para estrenar legislatura y nuevas competencias en el ámbito legislativo.

Asistimos con preocupación al escepticismo y el desinterés con el que muchos presencian estas elecciones. El modo en que desde Europa se está haciendo frente a la crisis, el impacto social de las medidas que se van tomando, el papel de las instituciones europeas, así como la tensión y la primacía de los intereses de cada país sobre los intereses generales están deteriorando la confianza en el proyecto europeo y en sus instituciones, y cuestionando el hecho mismo de votar en estas elecciones.

Conscientes, y compartiendo en gran medida estas preocupaciones, tenemos la convicción de que en estas elecciones nos jugamos mucho: el tipo de salida que se va a dar a la crisis, la apuesta por un modelo económico al servicio de las personas y, en definitiva, la construcción de una Europa que sirva a su ciudadanía. En este sentido, deseamos una Europa abierta y acogedora, comprometida con los derechos humanos y la justicia social, sostenible y en paz, más justa y solidaria con las personas y comunidades más vulnerables.

Nos sumamos a la petición de la Comisión de las Conferencias Episcopales de la Unión Europea (COMECE), en el sentido de configurar Europa como una comunidad de solidaridad y responsabilidad, basada en un modelo de economía social de mercado, en el que no solo prime lo económico, sino también lo político y lo moral. Debe, por tanto, estar al servicio de la justicia y la paz, con la voluntad decidida de preservar los derechos fundamentales de todas las personas.

Como comunidad cristiana tenemos el deber de recordar y exigir a los candidatos al Parlamento europeo que tenemos que construir un mundo diferente, presidido por la solidaridad, la búsqueda del bien común y el cuidado del medio ambiente. Pedimos al Señor, con el papa Francisco, *que nos regale políticos a quienes les duela de verdad la sociedad, el pueblo, la vida de los pobres* (Evangelii Gaudium 205).

Como ciudadanos y cristianos no podemos permanecer indiferentes. Por ello invitamos a votar y a participar en la construcción del presente y del futuro de Europa. Está en juego la vida y la dignidad de millones de personas.

Bilboko Elizbarrutia
Diócesis de Bilbao

Cáritas
Bizkaia

MISIOAK
Bilboko Elizbarrutia
Diócesis de Bilbao